

LEGAZPI / Juan Kruz Igerabide eta Fernando Morillo, idazle irakurrienak

Oporren atarian, ikasturtearen balorazio positiboa egiten du euskaltegiko irakurle taldeak. Uda osoan udal liburutegia irekita egongo denez, guztiek izango dute irakurtzen jarraitzeko aukera eta horretarako gomendio liburuxka osatu dute beraiek bidalitako iritziekin.

Urte osoan zehar 47 lagun izan dira taldean, denera 91 liburu izan dituzte eskuartean eta bataz beste, 4 liburu eta erdi baino gehiago irakurri dituzte. Honekin batera, 10 lagun aritu dira sortutako web orrian beren iritzia ematen. Idazle irakurrienak Juan Kruz Igerabide eta Fernando Morillo izan dira eta liburu arrakastatsuenak berriz ondorengo zerrendan azaltzen direnak: 31 Baioneta (Aitziber Etxeberriarena), Arotzaren eskuak (Alberto Ladronena), Bizitza Homeopatikoak (X. Mendigurenena), Connemara gure bihotzetan (J. Gabiriarena), Gloria Mundi (Fernando Morillorena), Hauts bihurtu zineten (Juan Kruz Igerabiderena), Ihes betea (Anjel Lertxundirena), Mendaroko Txokolatea (I. Irasizabalena) eta Tango Urdina (Aitziber Etxeberriarena).

Sari sorta ederra

Aurtengo igarkizunen lehiaketan Tere Caballero izan da irabazlea, 22 igarkizunetatik 9 asmatuz. Saritzat bere gustuko liburua jasoko du. Liburuei buruzko iritzien lehiaketan berriz, Miren Zuloagak irabazi du parte hartzaile guztien artean egindako zozketa, bi lagunentzako afaria eskuratuz.